

## BESTELAKO XEDAPENAK

### EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

## 5337

*EBAZPENA, 2015eko azaroaren 24koa, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, zeinarekin ezartzen baita absentzia- eta bateraezintasun-kasuetarako ordezkapen-araubidea, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde-ordezkaritzei atxikitako meatze-tekniariei dagokionez.*

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 190/2013 Dekretuan xedatutakoaren arabera, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariari dagokio –esleitzen zaizkion egitekoak betetzeko– administrazio-egintzak ematea. Egiteko horien artean dago, besteak beste, aldez aurretiko administrazio-baimena behar duten meategien arloko espedienteak kudeatzea, izapidetzea eta ebaztea.

Apirilaren 9ko 190/2013 Dekretuaren 23. artikulua ezartzen duenez, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren lurralde-ordezkaritza bat egongo da lurralde historiko bakoitzean, eta ordezkaritza horrek funtzio betearazleak izango ditu Sailaren eskumeneko arloetan, eta dagokion jarduteko lurralde-eremuan, betiere.

Industria, Merkataritza eta Turismoko lurralde-bulegoen egitura organikoa eta funtzionala arautzeko, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak, 2006ko abenduaren 4an, emandako Aginduan ezartzen denez, Industria, Merkataritza eta Turismoko lurralde-bulegoek baliatuko dituzte: arauzko arlo teknikoan duten eragin-maila dela-eta, espresuki lurralde-bulegoei eskuordetzen zaizkien administrazio-espedienteak izapidetzeko eta ebazteko eskumenak eta funtzioak.

Apirilaren 9ko 190/2013 Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak ezartzen duenez, lehenago aipatutako 2006ko abenduaren 4ko Aginduan Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren lurralde-bulegoei eta lurralde-bulegoei buruzko erreferentziak Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko lurralde-ordezkaritzei buruzkoa direla ulertuko dira.

Jazotakoa ikusirik, egokitzat jotzen da lurralde arteko ordezkapen-sistema bat diseinatzea, zeinarekin era homogeneoagoan banatuko baita lana absentzia- eta bateraezintasun-kasuetan, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko ordezkarietzi atxikitako meatze-tekniariei dagokionez.

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Lurralde-ordezkaritzetako meatze-tekniarien bateraezintasunak eta absentziak honelaxe ebatziko dira:

Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzako meatze-tekniariak beteko ditu Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzako meatze-tekniariaren bateraezintasunak eta absentziak.

Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzako meatze-tekniariak beteko ditu Arabako Lurralde Ordezkaritzako meatze-tekniariaren bateraezintasunak eta absentziak.

Arabako Lurralde Ordezkaritzako meatze-tekniariak beteko ditu Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzako meatze-tekniariaren bateraezintasunak eta absentziak.

Bigarrena.– Lurralde-ordezkaritzetako meatze-teknikarien artean, laguntza-atazak gauzatu behar direnean irizpide berdina aplikatuko da.

Hirugarrena.– Lurralde-ordezkaritza bakoitzak, dagokion lurralde historikoan, jakinarazi beharko die sektoreko enpresa eta interesdunei ebazpen hau, haiek jakitun izan daitezen, eta ondorio ego-kiak sor ditzan.

Laugarrena.– Lurralde-ordezkaritzei ebazpen hau jakinarazten zainetik hara izango da indarrean ebazpen hau, eta, bestalde, Ebazpen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Baina, guztiarekin ere, ebazpen hori buruzko administrazio-espedienteak –Zuzendaritzan edo ordezkarietan direnak– dagozkion lurralde-ordezkaritzari helarazi beharko zaizkio, ezarritakoa-ekin bat etorri betiere.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko azaroaren 24a.

Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendaria,  
AITOR PATXI OREGI BAZTARRIKA.